Basque Writing 34

EUSKARATIK MUNDURA ETA BUELTA



Basque Writing-en zenbaki honek euskaratik mundura eta hizkuntza gutxituetatik euskarara egindako bidea laburbiltzen du. Euskararen aldeko ekimenetik sortu zen Euskal PEN, izan ere, eta etengabe gure eta munduko beste hizkuntza indigena eta gutxituen aldamenean egon gara.

Ibilbide horretan, PEN International-eko **Itzulpen eta Hizkuntza Eskubideen Batzordeko buru** izateko zoria izan dut azken sei urteotan. Lehendik zetorren lan-ildo batean sakontzeko sasoia izan da. Adierazpen askatasunaren aurkako eraso larrienetakoa hizkuntzak galtzea dela barneratu du PENek.

Hau guztia ez da hutsetik etorri, bistan dena. **PEN Català**-ren eskutik duela 30 urte Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala sortzeko lan ikaragarria hartu zuten, eta egun ere testu haren berritzearen gidari dihardute. Gironako Adierazpena handik 15 urtera iritsi zen. 2016an, **Paul Bilbao** Euskal PENen lan honetan egon den kiderik finenak, **Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Donostiako Protokoloa** gidatu zuen, gizarte-zibileko eragileekin batera.

2020an batzordeburu izendatu nindutenerako, asko zen eginda zegoena. Handik gutxira, GARABIDE Elkarteko **Txema Abarrategi** handia zenak (zelan sumatzen dugun oraindik bere hutsunea!), eta **Miguel Angel Oxlaj** poeta kaqcihkelak ekarritako proposamena Bideo Poemen maratoi bihurtu genuen, mundu osoan hizkuntza indigena eta gutxituetan diharduten poetekin. Berak azaltzen du hobeto nola gertatu den hori guztia.

Hizkuntza indigenetan diharduten 26 poeta ***Lenguas Vivas*** ekimen ederra ere gauzatu dugu. Ondo bidean, 2027an argitaratuko dugu euskaraz. Dagoeneko, beste ideia eta proposamen ugari datoz, Ameriketatik, Europatik, Afrikatik, Asiatik, Ozeaniatik. **Wezi Msukwa-Panje** lagunak hartu berri du batzordearen ardura. Zorterik onena opa diot, bestela ere lan bikaina egingo duela jakitun.



Urtzi Urrutikoetxea
Euskal PEN

Bil ditzagun gure hizkuntzak liburu batean; eman diezaiegun jaten gure hizkuntzei

2018an, Garabiderekin Euskal Herrian egindako espezializazio ikastaro batean, mundu osoko pertsona konprometituak ezagutzeko aukera izan nuen, hizkuntza-biziberritzearekin ez ezik, pentsamenduaren deskolonizazioarekin, adierazpen-askatasunarekin, zapalkuntzaren aurkako borrokarekin eta gure herrien gainerako eskari legitimoekin konprometituak. Gai ezberdinez eta, ezinbestean, literaturaz hitz egin genuen pertsonetako bat Txema Abarrategui izan zen, garai hartan Garabideko zuzendaria zena.

Idazteko ahalegina egiten nuelako zurrumurrua ikasgelara iritsi zen, eta jardueretako batean nire testuren bat irakurtzera gonbidatu ninduten. Espezializazioa hizkuntza-biziberritzearen ingurukoa zenez, *"Gure hizkuntza"* poemaren aurreko bertsio bat prestatu nuen, eta kaqchikelez zein gaztelaniaz irakurri nuen. Irakurketaren ondoren, Txema hurbildu eta esan zidan: *"Nire pentsamendu euskaldun/europarrak inoiz ez zukeen pentsatuko gure hizkuntzek ere jateko beharra dutenik; irudi metaforiko interesgarria. Bidaltzen didazu? Agian euskarara itzul dezaket."*

Ez dut ondo gogoratzen bidali nion ala ez. Baina horrek atea ireki zigun berarekin literaturaz eta poesiaz, proiektu pertsonalez eta, agian, proiektu komunez hitz egiteko. Egun batean, mezu elektroniko bat bidali nion galdezka: *"Uste duzu Garabidek babes dezakeela poesia antologia baten argitalpena, 2019ko Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Urtearen esparruan? Hori gure hizkuntzei 'jaten emateko' modu bat da"*, gaineratu nuen. Bere erantzuna zintzoa izan zen: Garabide ez da horretan aritzen, baina ideiari polita iruditzen zitzaion, eta proiektu zehatz bat idazten bazion, agian interesatuko zitzaion norbait aurkitu zezakeen.

Egun batzuk geroago bidali nion. Ideia zen hizkuntza indigenetako poesia antologia bat egitea, non lingua franca euskara izango zen, eta ez hizkuntza nagusi bat. Bere erantzuna ia berehalakoa izan zen: *"Interesatzen zaigu. Baina ondo egongo litzateke Euskal PEN Kluba eta Erroa Argitaletxea ere inplikatzea, argitalpen-alderdi edizioan lagun diezaguten"*, esan zuen. Talde-mezu bat bidali zuen (orain berrikusten dudala, PEN Internazionaleko TLRCko presidente Urtzi Urrutikoetxearekin kontaktua izan genuen lehen e-posta izan zen), eta inplikatutakoak ados agertu ziren. Ilusionatu eta hasi egin ginen. Munduko

Ideia zen hizkuntza indigenetako poesia antologia bat egitea, non *lingua franca* euskara izango zen, eta ez hizkuntza nagusi bat.

hainbat jatorrizko herritara mezuak bidali ziren, "Bil ditzagun gure hizkuntzak liburu batean" lelopean. Eta poemak iristen hasi ziren. Hala ere, zerbait gertatu bide zen. Ez dut argi (2019an izan zen) zer gertatu zen zehazki, baina ezin izan genuen prozesua amaitu. Agian pandemiak zerikusia izan zuen, edo ez naiz gogoratzen.

Baina ideia hor geratu zen. 2021aren amaieran, Urtzi Urrutikoetxeak idatzi zidan PEN Internazionaleko Itzulpen eta Hizkuntza Eskubideen Batzordearen 2022ko Bideopoemen Maratoian parte hartzera gonbida-

tuz, otsailaren 21eko Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Egunaren esparruan. Pozik hartu nuen parte. Bideoa bidali nionean, eskertu eta esan zidan: *"Parte hartu nahi duten beste poeta batzuk ezagutzen badituzu, ongi etorriak dira".* Geroztik, Guatemalan eta eskualdean poetak deitzen aritu naiz bideopoemen maratoirako.

Urtzik beste maila batera eraman zuen ideia. Egun batean liburu fisiko gisa pentsatu zena, jende gutxik irakurriko zuen argitalpen mugatu batekin, Urtzi prestuak proiektu askoz anbiziosoago eta emankorrago bihurtu zuen. Teknologiaren abantailak aprobetxatuz, PEN Internazionalaren Bideopoemen Maratoia aukera ematen ari zaie leku urrunetan bizi diren eta beren jatorrizko hizkuntzetan poesia egiten ari diren egile askori entzunak, ikusaraziak eta ezagutuak izateko. Munduko 250 hizkuntza gutxitu baino gehiagorekin egindako 300 bideopoemak baino gehiagok eta milaka ikustaldiek berresten dute hori.

Eta kontua ez da hor gelditzen. YouTube plataforman daudenez, bideopoema horiei azpitituluak jar dakizkieke hizkuntza askotan. Urtzik hainbat hizkuntzatara itzuli ditu. Nahi duzun hizkuntza klikatzea besterik ez dago, eta poema jatorrizko hizkuntzan entzun eta itzulpena irakur dezakezu. Hau, besterik gabe, bikaina da! Zalantzarik gabe, Urtzik lan handia egin du eta ondare garrantzitsua uzten ari da PEN Internazionaleko Itzulpen eta Hizkuntza Eskubideen Batzordean.

Lan honi esker, PEN Internazionaleko TLRC hizkuntza indigenetako poetikak serioski hartzen ari da, adierazpen-askatasuna gailentzeko modu gisa; literaturan nagusi izan diren hizkuntzen eta bizirik irauten saiatzen ari diren eta kontatzeko asko duten, partekatzeko estetika literario asko dituzten hizkuntzen artean zubia eraikitzeko modu gisa.

Oinarri garrantzitsuak jarri direla bestelakotasunari errespetuz eta horizontaltasunetik begiratzeko, jakinda guztiok ditugula esateko eta partekatzeko ezinbesteko gauza garrantzitsuak.

Horrela, 2024an, *Lenguas Vivas* (Hizkuntza Biziak) antologiari ekin zitzaion. Latinoamerikako bost herrialdetako proposamen eta ekarpen garrantzitsu eta beharrezkoa izan zen, beren hizkuntza indigenetan idazten duten 26 egile bildu baitzituen. Oraindik asko dagoen arren egiteko, uste dut oinarri garrantzitsuak jarri direla bestelakotasunari errespetuz eta horizontaltasunetik begiratzeko, jakinda guztiok ditugula esateko eta partekatzeko ezinbesteko gauza garrantzitsuak.

Lan bikaina, TLRC! Eskerrik asko zure lanagatik, Urtzi adiskidea.




Miguel Ángel Oxlaj Cúmez
Lenguas Vivas proiektuaren koordinatzailea

Bideo-poemak

ZULUERA

Sihle Ntuli



Lunga


zaqala ziwutshani, zaphenduka ameva
zagwaza amafu, zawisa kwemvula
zasho zathi: nalokhu bekumele kwenzeke
zaphela izinhlungu, sabona sekulunga

Hobera egiten

belar ziren hasieran, arantza bihurtu ziren
hodeiak ziztatu zituzten, euria erorarazi zuten
esan zuten: honek ere hala gertatu behar zuen
minak amaitu ziren, eta ikusi genuen hobera egiten

MVSKOKE

Tod Hosford



Vn kolēppucē

Vn kolēppucē,
Cehvyayąkusēs.
Nere ofvn opanetsēs.
Ec oh-hoyopetvn cvyacē-mahēs.
Vnkoleppē monkēpvs.

Nereyise cekolepiyen,
Ec oh-hoyopit lihk'towis.
Hvresse facket
Ep oh-hvyayicen,
‘Te folothokēn ep oh-hvyvtiks.

Mocv-nerē, yomockofvn,
Ce hopoyvhan’t owis,
Es ce hecvyat, ce hvlvtarēs,
Cenrecvpvhanvkos.

Nerē ocen cekolēppvrēs.
ec oh-hoyopit likit,
Kóhwit owisen, cesvko tayēt omarēs.
Etektvnkusen aretskvrēs.

Ipurtargitxoa nirea

Ipurtargitxoa nirea,
hain zara distiratsua.
Gauez ari zara dantzan.
Maite dut zuri so egotea.
Segi niretzat dirdiraka.

Lehengo gauean dirdiraka ari zinen,
zuri beha eseri nintzen.
Ilargia bete egin zen
eta distira egin zigun,
eta gau osoan elkarren itzulinguruka ibili ginen.

Gaur gauean, ilun denean,
zure bila joango naiz,
eta aurkitzen zaitudanean helduko dizut,
eta ez zaitut askatuko.

Egongo da gaur bat, dirdira egingo duzuna.
Eseriko naiz, zuri begira,
eta nahiko dudan arren, ezingo zaitut harrapatu.
Libre ibiliko zara.



NORTHERN SÁMI

Helga West

Snahpastingo?

Nohkkengo oba?
8 diimmu seaŋggas ja leago vejolaš vajálduhttit beaivvi stuorámus ipmaša, nohkkama.
Don bidjet dán munnje, naba assimilašuvdna? Sohkabuolvvat, geat manahedje dievas ijaid.
Oainnat lea sáhka suomaiduhttima vuosttas dávdamearkkas, váttisvuođas oažžut nahkáriid.
Váttisvuođas rohttet nahkáriid, dásiid 2, 3 ja 4.

Lo-kuluxka izan da?

Loak hartu al nau?
Zortzi orduz ohean eta nola da posible eguneko miraririk handiena gertatu ote den ez gogoratzea; loak hartzearen une goxoa.
Niri egozten didazu – zer esan asimilazioaz? Gau osoak galdu zituzten belaunaldiak.
Asimilazio behartuaren lehen sintomaz ari gara, loak hartzeko zailtasunaz.
Horretaz ari gara hain zuzen: loa hartzeko zailtasunaz, 2, 3 eta 4. urratsak



DAKOTA LAPI


Gwen Westerman

Oyaṫe Waṡaḳaṗi

Ded oyaṫe waṡaḳa maniṗi tka
Ticaġaṗi k'a caŋḳu ḳaġaṗi itoḳab
Maka ḳiŋ wouŋḳ'uṗi
Su ożupi hena uŋkiyeṗi
Okṗaza k'a ożaŋżaŋ eṫaŋhaŋ wouŋḳ'uṗi
Naṗe hena maka ḳiŋ ḳicaŋyaṗi
Tohaŋ maka ṗuza, mniṫaŋ, ḣewaŋḳe ḳ'a ṫaḳu ide
Ḳ'aṡ ṫaḳu owas icaġe
Wasutoŋṗi k'a waoḳiyaṗi uŋspeṗi
Hnuḣ ded oyaṫe waṡaḳa maniṗi

Jende indartsua

Jende indartsua ibili zen hemen
Hormigoia eta altzairua baino askoz lehenago
Lurrak bazkatuta
Erein zituzten haziak gara gu
Iluntasunak eta argiak elikatuta
Esku itxaropentsuek lantzen dute lurra
Lehortean eta uriolan, izotzean eta sutan
Elkarrekin haziz
Beren uzta maitasunez partekatuz
Jende indartsua dabil hemen



MAPUDUNGUN

M Isabel Lara Millapan

Mapudungun Mew

Mapudungun mew üytuafuin ko, kürüf ka mapu.
Mapudungun mew
mütrümafuin wingkul
ka kimtukuafun relmu ñi dungun.
Mapudunguli, allkütuafun tralkan,
fey kimafun, chem dungu mew ñi femün
ka kimafun dewma tripapale antü
tañi chumngechi mongelen.

Mapudungun Hizkuntzan

Mapudungun-eraz, izendatu ditzaket ura, haizea, lurra.
Mapudungun mendiei dei egin ahal diet eta ulertu ostadarraren mezua.
Mapudungun-eraz egingo banu ekaitza erantzun gisa ulertu ahalko nuke eta egunsentia
biziaren jatorri bezala.

Etorkizuna hizkuntza indigenetan idazten

Bartzelonan 1996an egindako Hizkuntza Eskubideei buruzko Mundu Konferentziak eta **Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala**ren (HEDU) aldarrikapenak jarduera-eztanda bat piztu zuten PEN Internationalen Itzulpen eta Hizkuntza Eskubideen Batzordean. Hiru zati nabarmentzen dira: HEDUren sendotasun kontzeptuala, Nazio Batuen Erakundearekiko harremanak eta PEN zentroen zabalkundea mundu osoan.

HEDUren kontzeptuak ondorengo hamarkadetan Mexikon, Bolivian, Paraguain, Kolonbian eta beste hainbat tokitan onartutako hizkuntza-legeetako artikuluetan irakur daitezke, baita lerroartean ere. PENen barruan, bi adibide emate aldera, kontzeptu horiek gogoeta sakona eragin zuten Afrikako zentroen artean, eta horren ondorioz ***Culture's Oxygen*** (Kulturaren Oxigenoa) txostena argitaratu zen 2016an. Txostenak Afrikako hizkuntza nazionaletan argitaratzeko jardunbide egokiak proposatzen ditu, eta Ngũgĩ wa Thiong'ok kikuyuz idatzitako hitzaurrea du. Beste adibide bat: ***The Systematic Replacement of Tibetan Language with Mandarin Chinese*** (Tibetera mandarin txinerak sistematikoki ordezkatzea) txostenaren hitzaurrean, Giza Eskubideen eta Demokraziaren aldeko Tibeteko Zentroak HEDUren kontzeptuei zor diena aitortzen du.

NBErekiko harremana erakusteko, har dezagun azken hamarkadako bi une. 2019an, UNESCOk eta PENek **Hizkuntza Indigenen Nazioarteko Urtea** ospatu zuten San Cristóbal de las Casas-en. *«Etorkizuna hizkuntza indigenetan idazten»* izeneko topaketa hark PENen barruan Ameriketako literatura indigenen presentzia berretsi eta sendotu zuen. Hurrengo urtean, gutxiengoen gaiei buruzko Nazio Batuen Erakundeko errelatore bereziak, Fernand de Varennesek, PENen nazioarteko kongresuari hasiera eman zion Filipinetan, artxipelagoan hitz egiten diren hizkuntza guztiak errespetatzeko deia eginez.

1996ko konferentziaren ondoren, harremana mantendu genuen Bartzelonara etorritako monje tibetarrekin, eta 2000. urtean **Tibeteko PEN erbesteratua**ren taldea sortu zen. Horren ildotik, erbestean ere, **PEN uigurra**ren sorrera etorri zen 2006an. 2004an, Tromsøn egindako nazioarteko kongresu batean, **Euskal PEN** berria sortu zen; hurrengo urtean, berriz, **Txetxeniako PEN erbesteratua**. **Afrikaans PEN** 2012an etorri zen, eta **Galesko PEN** berria 2014an, eta **PEN South India** 2017an. 2020an, **PEN Chiapas Pluricultural** sortu zen, eta hurrengo urtean, PENen mendeurrenean, **PEN Quechua**. PENen bigarren mende honetan, ohikoa bihurtu da gure nazioarteko kongresuetan **PEN Guatemala**ko ordezkaria Maya Kaqchikel idazle bat izatea, **PEN Txile**koa Selk'nam idazle bat, **PEN Argentina**koa mapudungun hizkuntzako poeta, edo **PEN Malaysia**koa Sarawakeko iban herriko idazlea. 2025ean, Krakovian egindako kongresuak **Errusiako Hizkuntzen PEN** eta **Behe Alemanezko eta Frisierazko PEN** taldeak hartu zituen, eta 2026an, berriz, **PEN Asturiarra** eta **PEN Romani**. Izan ere, literaturak ez du mugarik ezagutzen.



Carles Torner
Vice President of PEN International

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala eta hura eguneratzeko prozesua

1996an onartutako Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala funtsezko erreferentzia-tresna da mundu osoko hizkuntza-aniztasuna babesteko. Hala ere, onartu zenetik, testuinguru soziala, politikoa eta teknologikoa sakon aldatu dira. Aldi berean, hizkuntza-eskubideen urraketa sistematikoak eta politika asimilazionistak, bai esplizituak bai ezkutukoak, ohiko praktikak dira oraindik estatu askotan, baita beren burua demokratikotzat duten eta giza eskubideekiko errespetua aldarrikatzen duten estatuetan ere. Egoera horrek agerian utzi du **HEDU eguneratzeko eta XXI. mendeko errealitateetara egokitzeko prozesu parte-hartzaile bat bultzatzeko beharra.**

Eguneratze-prozesua 2026ko apiriletik 2028ko ekainera bitartean egingo da, eta PEN Catalàk eta CIEMENek bultzatzen dute, katalanaren eremu linguistikoko, Espainiako Estatuko eta nazioarteko erakunde ugariren babesarekin. Eguneratze-prozesuaren lehen urratsa *Hizkuntzarako eskubidea. Etorkizunera begirako Hizkuntza Eskubideen Adierazpen Unibertsal berri baten alde* liburua argitaratzea izan da. Vicenta Tasa i Fusterrek koordinatu du, eta hizkuntza-eskubideetan adituak diren honako hauek hartu dute parte: Simona Škrabec, Víctor García Tur, Pit-roig Vinyals i Tasa, Carles Torner Pifarré, Oriol Ramon i Mimó, Isidor Marí Mayans, Eva Pons Parera, Anna M. Pla Boix, Júlia Ojeda Caba, Jordi Martí Monllau, Sebastià Portell Clar, Pere Comellas Casanova eta Eloi Bellés Boeta.

Eguneratze honen funtsezko helburua hizkuntza-eskubideak Nazio Batuen Erakundeak defendatzen duen giza eskubideen sisteman erabat eta zuzenean txertatzea da. Horretarako, **nazioarteko adituen eztabaida-prozesu bat aurreikusi da, gizarte zibilaren parte-hartze aktiboarekin,** estatuek prozesuaren emaitza izango den testua NBEren adierazpen bihur dezaten. Parte-hartze prozesua 2026ko apirilaren 15ean hasi eta urte bereko abenduan amaituko da.

Adierazpen eguneratua onartu ondoren, hiru epemuga dituen ibilbide-orri bat ezarriko da. Epe laburrean, UNESCOren eta NBEren Batzar Nagusiaren esparruan, balio sinbolikoa izango duen hizkuntza-eskubideen aldeko adierazpen unibertsal bat bultzatu nahi da, eskubide horien aitorpenean aurrera egiteko beharrezkoa izango dena. Epe ertainera, ahaleginak egingo dira NBEren batzordeek giza eskubideen hizkuntza-dimentsioa azpimarratuko duten eta hizkuntza-eskubideak giza eskubideak direla berretsiko duten ohartarazpen orokorrak eman ditzaten lan egingo da; ildo hori Nazio Batuen gutxiengoen gaiei buruzko errelatore bereziak garatu izan du**. Epe luzera, helburua da hautazko protokolo bat negoziatzea lehendik dagoen itun bati, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunari (EZPI), eskubide horiek estatuen aurrean exijigarriak izan daitezen.**

Hizkuntza-eskubideen babesa kalitate demokratikoaren lehen mailako proba da, **eskubide horiek izaera indibiduala eta kolektiboa baitute.** Nazioarteko esparruan aurrerapen normatiboak egon badira ere, estatu askok sistematikoki urratzen dituzte hizkuntza-eskubideak; horrek erronka zehatzak planteatzen dizkie abokatuei eta zuzenbideko eragileei kontrol-mekanismoak eta jurisprudentzia konparatua erabiltzeko orduan.

HEDU eguneratzeko ekimenak aukera paregabea eskaintzen du hizkuntza-eskubideak nazioarteko agendaren erdigunean kokatzeko eta arau-esparru koherente eta zorrotzago bat sendotzeko. Hizkuntza-eskubiderik gabe ez dago giza eskubideen erabateko gauzatzerik, eta berme eraginkorrik gabe, hizkuntza-eskubideak asmo-adierazpen huts bihurtzen dira. 2026ko apirilean abiatutako prozesuak printzipio hori errealitate ukigarri bihurtzeko balio behar du.



Vicenta Tasa i Fuste
Valentziako Unibertsitateko Hizkuntza Eskubideen Katedraren zuzendaria. PEN Catalá-ko TLRCko burua

PROTOKOLOA: Gizarte eragileen ahalduntzea

2016ko abenduaren 17an, Europan **hizkuntza gutxituen alde gizarte eragileen aldetik inoiz egin den hausnarketa-prozesuaren handienaren ondorioak aurkeztu ziren** leporaino beteta zegoen Donostiako Kursäal jauregian: **Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa.**


Ordura arte, kontziente ginen nazioarteko instituzioek ez zutela benetako urrats ausartik egin hizkuntza-eskubideei izaera subjektiboa aitortu, eta horien garapenerako tresna edo mekanismo eraginkorrik sortzeko. Aitzitik, gizarte-eragileen eskutik etorri zen 1996eko ekainaren 6an Hizkuntza Eskubideen Adierazpen Unibertsala - **HEAUren aurkezpena. Hito historikoa, izan ere, lehen aldiz, hizkuntza-eskubideak eskubide subjektibo gisa** hartuko zituen dokumentu bat argitaratu zen, eta hizkuntza-eskubideen eremuan iraulketa ekarri zuen.

2016an, Donostiak Europako Kultur Hiriburutza zuen, eta Euskalgintzaren Kontseiluan uste genuen hiriburutza horrek keinua egin behar ziela, gurea bezala, egoera gutxituan dauden hizkuntzei. Keinua ez ezik, ekarpen ukigarria egin beharra aldarrikatu genuen. Horrexegatik, prozesu bat abiatzea proposatu genuen zeinen azken emaitza Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa delako dokumentua izango zen, hain zuzen ere, Hizkuntza Eskubideen Adierazpen Unibertsala betetzeko hartu beharreko neurriak bilduko zituen dokumentua.

Prozesua bideratzeko Talde Antolatzailea eratu genuen, eta bertan nazioartean ospe eta eskarmentu handia duten **sei erakunderi egin genien gonbita: CIEMEN, LINGUAPAX, UNPO, ELEN, PEN INTERNATIONAL eta ECMI.** Horretaz gain, hainbat eremutako nazioarteko adituek osatutako Batzorde Zientifikoa eratu genuen.

Halere, **Proiektuaren muina gizarte eragileek osatu zuten,** hizkuntza gutxiagotuen alde lan egiten duten eragileak hain zuzen. Europa osoa zeharkatu genuen gizarte eragileekin lanketa egiteko: hamarnaka aurkezpen, ehunka ekarpen... Esan bezala, Europan gizarte-eragileek hizkuntza-eskubideen esparruan inoiz egin duten ariketarik handiena izan zen. Amaieran, **Europako hogeita hamar hizkuntza-komunitate baino gehiagoko ehunetik gora eragilek adostutako dokumentua aurkeztu genuen.**

Prozesu ikaragarria izan zen, amaierako ekitaldian erakutsi bezala, hizkuntza gutxiagotuen alde lan egiten dugun eragileok BAGARA NOR. Gure konpromisoa argi geratu zen, bai eta gure grina ere. Halere, jakin dakigu hori ez dela nahikoa. Egoera gutxituan dagoen hizkuntza bat normalizatuko bada, **gizarte-atxikimenduaz gain, hizkuntza-politika eraginkorrak behar ditu.** Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren bidez ekarpena egin genuen hizkuntza-politika horien norabideak zehazteko. Dena den, politikak egitea ez dago gure esku, hori instituzio publikoei dagokie. Ondorioz, **eragiten jarraitu beharko dugu,** hizkuntzaren esparruan ere, benetako berdintasuna erdietsiko badugu. Ez dugu etsiko!



Paul Bilbao Sarria
Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren arduraduna

Editorea: Urtzi Urrutikoetxea
Diseinua eta maketazioa: Laura Mintegi

pen@euskalpen.eus
www.euskalpen.eus

BASQUE PEN
Agoitz Plaza, 1.
48015 Bilbao-Bizkaia
Euskal Herria

Babeslea: ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA